

# Rolak trukatur

Agus Perez

**M**akineria eszeniko enigmatiko baten erdian agertu dira lehen antzezleak, Atx Teatroaren azken muntaiari. *Arren ganbara eta emeen sotoa* izenburu luze eta berezia ederto dagokio Luis Riazak (Madril, 1925) idatzitako obra konplexuari, eta bere erroetan rol aldaketa esanguratsu batzuk gertatzen dira —emeak eta arrak, jauntxoak eta bufoiak, errealtatea eta antzezpena...—, frankismo garaiko zentsura saihestu nahian, agian. Egiatan, ordea, boterearen gaineko gogoeta jasoa da, eta distantziamendu abstraktu horrek eman dio denboraren higadura gainditzeko indarra.

Riaza egile isilarazia da Espainian, baina nahiko ezaguna gertatzen da Europako zenbait herrietan, eta Iñaki Ziarrustaren euskaratze finari esker Euskal Herriak ere jasoko du haren testigantza baliotsua. Testuak, zelan ez, garai haietako existentzialismo berantiarren aztarniak gordetzen ditu bere baitan, eta argi dago europar korrante batzuen eragina jaso zuela; hala nola, kru-deltasunaren teatroarena, edota absurduarena. Ziarrustak egingako lana, beraz, merezimendu handikoa da, ez bakarrik kanpoko obra handi bat geure moldeetara ekartzeagatik, baizik eta testuaren maila literario itzela dotoreziaz eta jariotasunez etorraz duelako.

Osterantzean, beste kontu bat da testua egokiena ote den antzezleen ahotan eta ikusleen belarrietan ibiltzeko, baina alde horretatik ere argia bezain ausarta izan da Atx Teatroaren hautua: euren ustez —eta neurean ere bai— ikusleak trebatu egin behar



## KRITIKA Antzerkia

'Arren ganbara eta emeen sotoa'

**Egilea:** Luis Riaza. **Moldaketa, itzulpena eta zuzendaritza:** Iñaki Ziarrusta. **Aktoreak:** Eñaut Gantxegi, Florentino Badiola, Eneko Sagardoi, Marina Aparicio. **Lekua:** Kultur Leioa aretoa. **Eguna:** Otsailak 26.

dira kalitatezko testuak entzuten eta prozesatzen, eta arlo horretan eredugarria izan da ahotsen tratamendu landua, modulazio, proiektzio, ahoskera eta intonazioari begira.

Proposamen eszenikoari dagozkionez, lehen esandako makineriak protagonismo sinbolikoa hartu, eta nolabaiteko kutsu liturgikoa eman dio muntaiari, izenburuko ganbara eta sotoa irudikatzeaz gain, boterearen mekanismo itsuak eta naturaren indar ilunak sinbolizatu dituelako. Gainera, estetika bortitz eta artegarri horretan bat egin dute argien diseinu erdi tenebristak, musikaren hautapen egoikiak eta jantzien itxura groteskoak.

Aktoreak, azkenik, zeharo integratu dira proposamenaren osotasunean. Elkarren arteko kohesio handia erakutsi dute denbora guztian, eta beren jarrerak, ahotsak eta keinuak taldearen planteamenduen erakusle izan dira, norberaren jarrera dramatiko anplifikatuz eta ikusleak goragoko esangura maila batera eramanez. Sendotu da, beraz, bide berri bat euskarazko errotiko antzerkigintzan. Ongi etorria eta urte askotarako izan dadila.